

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Emakumeen kode sekretua

HUNAN, TXINA, 2004ko IRAILAREN 23A. Yang Huanyi hil zen 98 urte zituela. Ia hamar urte lehenago, 1995ean, Nazio Batuen Konferentzia Pekinen burutu zen, eta Yang, bertan izan zen. Nola iritsi zen laborari xume baten alarguna Konferentziako txinatar ordezkari garrantzitsuenetako izatera? Yang Huanyi nushu hizkuntzaren azken hiztuna zen.

Nushua K.o. III. mendean sortu zela uste da. Ordutik, belaunaldiz belaunaldi, sekretupean eta soilik emakumeen artean transmititu zen hizkuntza idatzia, Hunan probintzian bereziki, baina baita Txina hegoaldeko beste toki batzuetan ere. Emakumeek bakarrik ulertzeaz gain, nushua ez zen hitz egiten, soilik idazteko eta irakurtzeko kodea zen. Eta hala ere, ez da ia dokumentazio idatzirik geratu, eskuizkribuak erretzeko edo hildakoekin ehortzeko ohitura baitzuten, sekretua gordetzearen. Berreskuratu ahal izan den dokumentu batek hala dio: “Gizonezkoek kanpora irteteko eta munduari aurre egiteko adorea dute, baina emakumeon adorea ez da txikiagoa, haiek ulertu ezin duten hizkuntza asmatu baitugu”.

Duela 1.700 urte, Txinako emakumeak aitarren edo senarraren etxe barruan bizitzera behartuta zeuden, gizonezkoen autoritatearen mende. Ez zuten hezkuntza formala jasotzeko eskubiderik; irakurtzen eta idazten ikastea debekatuta zegoen haientzat. Egoera horri aurre egiteko euren hizkuntza asmatzea erabaki zuten. Mandarin hizkuntza instituzional eta hierarkikoaren aurrean, nushua emakumeentzat emozioen, ametsen eta desioen hizkuntza bihurtu zen.



Ezkerrean, Yang Huanyi, nushu hizkuntzaren azken hiztuna, hil baino lehen. Goian nushuz idatzitako testu bat.

Nushuak 2.000 hitz inguru zituen, eta karaktereak txineraren antza izan arren, zeinu estilizatuagoak erabiltzen zituzten. Azken belaunaldietan nushuaren erabilerak behera egin zuen, eta azkenean, Yangekin batera, duela 3 urte hil zen.

Emakumeak bazekien nushuarenak egin zuela, handik aurrera sekretuak ez zuela zentzurik. Horregatik, 1995eko Pekingo Konferentzian, bere bizitza luzean nushu hizkuntzan idatzitako gutunak, poemak eta artikulatuak adituei eman zizkien. Dokumentu horiekin Qinghua-ko unibertsitateak liburu argitaratu berri du. Eta Txinako gobernua ahalegin berezia egiten ari da azken urteetan kode sekretuan idatzitako testuak berreskuratzen. ■

ARRASTOAK

CRISTOBAL COLON al da alboko irudian ageri den gizona? Manuel L. eta Silvia J. da Silva idazle portugaldarren esanetan irudiko gizon ezagunaren benetako izena Salvador Fernandes Zarco da. Eta azken urtean Portugaleko heroi bihurtu da, 1492an Amerika “deskubritu” omen zuelako. Gerora Cristobal Colon izenez ezaguna egin zena, Alentejo jaio zen teoria honen arabera.

Ez da hau Coloni ikertu dioten jatorri bakarra. Esaterako, Jordi Bilbeny historia-

lariak urteak daramatza bere tesia lantzen: Cristófor Colom Kataluniako printzea zela frogatu nahi du kataluniarrak.

Oraingoz, portugaldarren tesiak arrakasta handia izan du Colonen aberri berrian. Manuel L. eta Silvia J. Dasilvak idatzitako liburuaren 100.000 ale saldu dira joan den urteko maiatzetik, eta orain, hil honetan bertan, Manoel de Oliveira zinegileak tesiaren inguruan egindako filma estreinatuko da.

